

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

27/2019 Foru Agindua, urriaren 24koa, zeinaren bidez ebazten baita martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduan aurreikusitako ondore fasea. Foru Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanpostuak betetzeko 1/2018 lehiaketarako deia egin zen eta deialdi horretarako oinarri arauak onetsi ziren

Otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduaren bidez (martxoaren 5eko 51/2019 Foru Aginduak eta martxoaren 12ko 64/2019 Foru Aginduak aldatu zuten), martxoaren 14ko 54/2018 Foru Aginduan aurreikusitako ondore faserako deia egin zen. 54/2018 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanpostuak betetzeko 1/2018 lehiaketarako deia egin zen eta deialdi horretarako oinarri arauak onetsi ziren.

54/2018 Foru Aginduaren I. eranskineko laugarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera, Balioespen Batzordea eratu zen, eta foru agindu horren bederatzigarren oinarrian ezarritakoa betez, Balioespen Batzordeak destinoak behin betiko esleitzeko proposamena aurkeztu dio Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onetsi zuen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan lanpostuak hornitzeko 1/2018 lehiaketaren ondore fasea, zeina otsailaren 28ko 48/2019 Foru Aginduaren bidez deitu baitzen, eta lortutako lanpostuak behin betiko esleitzea ebazpen honen eranskinean aipatzen diren funtzionarioei.

Bigarrena. Ezin zaie uko egin lorturiko lanpostuei, eta esleipendunek ezin izango dute parte hartu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuak betetzeko hurrengo deialdietan, lanpostuak jabetzan hartu eta hurrengo bi urteetan, salbu eta Funtzio Publikoko Legeak 50. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Hori guztia deialdiko bederatzigarren oinarri arauko 2. puntuan xedatutakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena. Lanpostua esleitu zaien funtzionarioak 2019ko azaroaren 11n jabetuko dira lanpostuez.

Laugarrena. Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean bertan; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin loturik– xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko urriaren 24a

Gizarte Politiken Saileko diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Eranskina**1/2018 LEHIAKETAREN ONDORE FASEKO BEHIN BETIKO ESLEIPENAK**

55.244 Erizain laguntzailea	80.2.02.10.1. Lakuako eguneko zentroa	NANa: 44678324
56.045 Laneko zentroko begiralea	80.2.03.4.09 Lakua Sansomendiko laneko zentroa	NANa: 72718114
56.054 Laneko zentroko begiralea	80.2.03.4.10 Lakua Arriagako laneko zentroa	NANa: 18602941
56.059 Laneko zentroko begiralea	80.2.03.4.10 Lakua Arriagako laneko zentroa	NANa: 18598271
56.060 Laneko zentroko begiralea	80.2.03.4.10 Lakua Arriagako laneko zentroa	NANa: 16297150
126.039 Laneko zentroko begiralea	80.2.03.4.09 Lakua Sansomendiko laneko zentroa	NANa: 34101536